

# Beldurrik ez



**KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE**  
IDAZLEA



PAULA ESTÉVEZ

**I**kasturte hastapen honetan, lankide eta pertsona ezagunek galde eginen didate: “Nola iragan duzu bada oporraldia? Goxoan? Pausatu zara?”. Baietz baikor batez erantzun ahalko diet, bakearengatik, betiko erranarekin segituz: “Eta orain eskola sartzea... Lana eta kezken aldi... Beharko, no!”.

Bizkitartean, ez ditut batere opor bakesuak bizi izan, alderantziz. Uztailaren lehen astean, lehenik, Baigorri iragan zen populu autoktonoei buruzko seminarioan, izugarrikeriak entzuna ditut. Aste osoan, Justizia Trantsizionalaren aldeko Erakunde Frankofonoak gonbidatu adituen solasak izan dira, mundu guziko tribu mehatxatuen arazoak luze eta zabal azaltzeko. Larunbatean berriz, mahai-ingurua antolatua zen populu autoktonoen hizkuntza eskubideez. Hor aritu da ohol-tza gainera Ipar Ameriketako indioez jakintsu handi bat, modu biziki interesgarrian erakutsi duena nolaz tribu horietako norbanako batzuek beren biktima egoera gaitzetez lortu duten, batez ere literaturaren bidez, hizkuntza nagusi eta menderatzailean idatzitako kontaketa edo poesien kodeak zangopilatuz, eta beren literatura berezia eraikiz. Hizlariak ondorioztatu du populu zapalduak

berek behar dituztela askatasun bideak urratu, kultura zapaltzaileen arauetatik at eta beren kulturaren berezitasunetatik abiatuz. Ohar horrekin bukatzen zirelako gonbidatuen mintzaldiak, publikoari eman zaio hitza, eta herritar batek, delako aditu haren konklusioari jarraituz, hamar bat minutuz aurkeztu du Garabide elkartearen lana, horren xedea dela kooperazio linguistikoa bultzatzea hizkuntza gutxituetako populuen artean, hots, hizkuntza menderatuen biziberritze prozesu esperientzia berezien trukaketa. Herritar hori mintzatu da euskaraz lehenik, ondotik frantsesez. Ikusi behariko zenukeen, irakurle, aipatutako jakintsu handiaren bat-bateko ezinegon eta haserre, euskarazko hitzartze horren nondik norakoak ulertu ezinik. Ustez eta herritar hori biltzarra nahasteko xedez publikoari hitza konfiskatzera etorria zela, oihukatu zuen mikrofonoan: “Isil zaitez, hitza monopolizatzen duen euskal aktibista hori! Terrorismo linguistikoa da!”. Publikoak eta antolatzaileek berehala iharduki zuten eta jakintsu handiari behar ziren azalpenak eman zizkieten, baina erranak erran: beldur eman zidan ikusteak hein horretako adituak badirela populu autoktonoen hizkuntzen

defentsan engaiatuak, eta aski zozoak euskaldun bat Baigorri gai horri buruzko goi mailako batzar batean “terrorista linguistikoa” hitzekin iraintzeko.

Berantago, agorrilean, zeharkako esperientzia psikologikoa gogorra bizi izan dut, jazarpen moral dorpea jasan duen hurbileko bat lagundu dudalako, beste adiskideekin, ahal bezala bizitza normal batera itzultzen. Hor ere ikaratu naiz ohartzeaz zein bortitzak izan daitezkeen giza trukaketak, eta bi presunen arteko konfiantza zein errazki bihur daitezkeen mesfidantzazko, gorrotozko edo beldurrezko harremana.

Beste gisako daldara eman didate haatik, agorri hondarrean, zoko-moko guzietan zeuden polizia, jendarme eta soldaduek, G7 absurduaren kari denen bistan gain-gainetik armatuak, helikoptero, motor eta beste ibilgailuen burrunba beldurgarria lagun.

Baina, zer ba? Hain ikaratuta nengoe-la ez nuen pentsatzen... Ongi gogoetatu-eta, iruditzen zait inguratzen gaituen terrorismo giroak harrapatu nauela alferregi egon naizelako uda honetan. Betor ikasturte berria, beldurrik gabe lotuko natzaio berriz lanari, jende ona eta etorkizun hobea xede. ●